**1997-98 ko IKASURTEA • OSOGUNEKO ERAKASKERA**

**ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA •**

1- Baiona nola da mende hunen hastean?
2- Zer egiten da Baionaren hobekitzeko?
3- Emazkitzue zonbeit behazun?

## (II)

### Bizia Baionan

Zonbeit urthe huntan edertuz doa eta hedatuz Baionako hiria.

Ohiko gerlatiarrek[1] inguruan altxatu harrasi[2] gora lodien bar-nean aspaldi du etzezakela hedadura gehiago nehorat har. Bethea zen eta da oraino etxez, arroltzea bezala; biziki hertsiegi eta el-garri hurbilegi lantegiak, botigak, bizitegiak.

Iguzki eta hats eskasez oro elgarren poxolu, guziz tokitan, karrikarik zaharrenetan. Itho nahi. Zer zimitza[3] eta zorri ohan-tzeak[4]!

're eskasaren gainera emazue hainbertze zoko-mokotan no-anahi bizi direnen usteldura; izanen da berriz ere mathela zuhail-horail[5], sorbalda sarthu, bulhar galdu, gazterik zahar higatu, hi-rian.

Bego kanpaña[6] nausi osasunarentzat.

Nahiz ez den errex, ari dute bizkitartean harrasien barneko hiria, emeki-emeki garbitzen, argitzen, idekitzen norapeit, ahal rau. Karrika ilhun, itsu batzuetan etxe zahar bat eror dadila bere baitharik, edo erre, hiria jabetzen da parada onean balin badu, lu-raz, gostatzen[7] dena gosta; plaza ttipi bat bizpahiru arbolekin, hurri bat, pasaia[8] berri bat egiten dautzute, auzoentzat ez baita uti laket eta on.

Zahar-berrikatzen dituzten edo errotik berri deramatzaten etxeak ere lehengoez bertzerik dire argiz, hatsez, osasunari doazkon zer guziez.

Bi plaza handi ederrak egin berri dituzte, oro landare, lore, z..., alki, edertuz joanen direnak, arbolak handitzearekin.

Garatik[9] hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, ez baita oizegi izanen; egun batzuez han ez den harat-hunat, oinezko, aldizko, suzko herrementeriarik[10] ez baita, noiznahi elgar leher-tekotan.

Lan hori aspaldi duela hitzemanik beren hitzaren jalek baino segurago eta lasterrago, egin-araziko baitu beharrak, ezinbertzeak.

HIRIART-URRUTY kalonjea

**UKAN Conj. à double complément - INDICATIF PRÉSENT**
**Objet singulier o Cplt indirect singulier • ZURI = AVEC VOUS**

| | |
|---|---|
| Nik dauzut | = Je vous l'ai |
| Harek dauzu | = Il vous l'a |
| Guk dauzugu | = Nous vous l'avons |
| Heiek dauzute | = Ils vous l'ont |

Emaiten dauzut = Je vous le donne.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31_ Etzezakela 32_ Bego kanpaña
33_ Eror dadila 34_ Egiten dautzute
35_ Deramatzaten _ 36_ Doazkon _

**31 UKAN. Potentiel Imparfait**

| Objet singulier • | | Objet pluriel • | |
|---|---|---|---|
| Nik Ukan nezaken | : Je pouvais l'avoir | Uk. nitzazken | : Je pouvais les avoir |
| Hik -"- hezaken | : | -"- hitzazken | : |
| Zuk -"- zinezaken | : | -"- zinitzazken | : |
| Harek -"- zezaken | : | -"- zitzazken | : etc |
| Guk -"- ginezaken | : | -"- ginitzazken | : |
| Zuek -"- zinezaketen | : | -"- zinitzazketen | : |
| Heiek -"- zezaketen | : etc | -"- zitzazketen | : ils pouvaient les avoir |

**32. EGON - Impératif.**

| formes usuelles | | formes d'après le radical |
|---|---|---|
| Hi | hago (reste) | hago |
| Zu | zaude (restez) | zagoz |
| Hura | bego (qu'il reste) | bego |
| Gu | gauden (restons) | gagoz |
| Zuek | zaudezte (restez) | zagozte |
| Hek | beude (qu'ils restent) | begoz, begozte |

**33 IZAN. Subjonctif présent •**

| | | |
|---|---|---|
| Ni | izan nadin | = que je sois |
| Hi | -"- hadin | = que tu sois |
| Zu | -"- zaiten (ziten) | = que vous soyez |
| Hura | -"- dadin | = qu'il soit |
| Gu | -"- gaitezen (gaiten, giten) | = que nous soyons |
| Zuek | -"- zaitezten (zitezten) | = que vous soyez |
| Hek | -"- daitezen (ditezen, diten) | = qu'ils soient. |